




SAGUAK ETA GIZONAK



**FITXA TEKNIKOA**

AUTOREA: John Steinbeck

IZENBURUA: Saguak eta gizonak

ITZULTZAILEA: Iñigo Errasti

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Irun, Alberdania, 2012

ORRIALDE KOPURUA: 158

ISBN: 978-84-9868-358-5

**ADIN TARTEA** (Kolorez azpimarratu)

16 urtetik aurrera

**IRUZKINA**

Liburu labur bezain hunkigarria. Deskribapen batez hasten da, eta hasieran, ez dirudi ezer berezia gertatuko denik, baina bi protagonistak agertzen diren une beretik antzematen da gauzak okertuko egingo direla. Gogorra da, emozioak eta sentimenduak oso ongi islatzen ditu, eta zenbait unetan egoerak “ikusit” ere egiten direla esan daiteke. Narratzaile orojakilea ageri da. Liburua hasi eta bukatu leku berean egiten denez, egitura biribila duela esan daiteke. Oso ongi sortutako pertsonaiak ageri dira, eta garaiko giroa eta egoera primeran deskribatzen ditu.

Hona hemen **argumentua**: Bi langile, George eta Lennie, leku batetik bestera dabilta lanean, bata “atzeratu” samarra da eta beti arazoetan sartzen da, besteak bere ardura hartzen du. Elkar babesten dutela esan daiteke. Biek dute amets bera: egunen batean lur sail bat eta etxetxo bat erostea, bertan inoren menpe izan gabe bizi ahal izateko. Untxiak izango dituzte eta Lennie zainduko ditu. Egun baten, rantxo berri batera agertuko dira, eta han ere Lennie arazoetan sartuko ote dituen beldur izango da. George. Rantxoko



bizimodura egokitzen ahaleginduko dira. Halako batean, susmo txarrenak bete egingo dira. Nagusiaren errainarekin arazoa izango du Lennie eta alde egin beharko du. Georgek jakingo du non aurkitu Lennie. Erabaki oso gogorra hartu beharko du, nagusiaren semeak aurkitzen badu okerrago izango baita.

## IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

### A/ EZTABAIDA: Gizarteko mugetan bizi diren pertsonak.

- Klase sozialak (Wikipedian azalpen zabalak daude, ingelesez eta gaztelaniaz euskaraz baino txukunago)
- Existitzen al dira gaur egun?
- Zeintzuk dira?
- Zeren arabera bereizten dira?
- Immigrazioa eta emigrazioa, atzerritarrak gurean, gu atzerrian.
- Zerrendatu zure familiako migrazioak, hiru belaunaldietan, gutxienez.
- Nork noiz eta nola du zilegi migrazioa?

### B/ EZTABAIDA: Lan prekarioak

- Langileen estatutua.
- Galdetu lanean aritzeko adinean dauden bost laguni ea inoiz irakurri duten Langileen estatutua, zati bat gutxienez.
- Galdetu lanean aritzeko adinean dauden bost laguni euren eskubideetako batzuk eta betebeharrak batzuk esateko.
- Zeintzuk dira zure ustez langile baten oinarrizko hamar eskubide eta hamar betebeharrak?
- Lan prekarioa nork eta zergatik egiten du? Nola konponduko zenuke arazoa? Bideragarria al da zure proposamena?



### C/ IDAZLEAREN SOSLAIA

- Steinbeck-en biografia eta bibliografia ([wikipedian](#)) irakurri, bere obraren asmo politikoak eta kritika sozialak zeintzuk izan ziren identifikatzeko. Bide batez bere obrak eragindako filmografian arakatu. Adibidez:
- “Saguak eta gizonak” filma ikusi: gaztelaniaz “De ratones y hombres” 1993 edota ingelesez "Of Mice and Men" 1992. Bada beste bertzio bat, 1939koa, baina zaila da topatzen.
- Alderatu liburuarekin: gidoia eta pertsonaien karakterizazioa batik bat.
- “Edengo ekialdean” filma ikusi: gaztelaniaz “Al este del Eden” 1958, edota ingelesez “East of Eden” 1955.
- Zeintzuk dira arrakastaren eta porrotaren faktore garrantzitsuak Steinbeck-en arabera? Ados zaude?